


HASIERA	GAIAK ▾	SEARCH
	<p>ANTZERKIAARTEABERDINTASUNABERTSOLARITZADANTZAERAKUSKETA EUSKARAGAZTEAKIRITZI ARTIKULUAKJAIALDIAKJARDUNALDIAK JENDARTEAKIROLALITERATURAMUSIKAZINEMABESTELAKOAK</p>	
	ATALAK ▾	
	KONTALARIAKBEREZIAKBULETINAMULTIMEDIAGURE BAZTERRETATIK KS ARETOA	
	HERRIALDEKA ▾	
	ARABANAFARROA BEHEREABIZKAIAGIPUZKOALAPURDINAFARROA ZUBEROAEUSKALHERRIA	
	ZOKETAK ▾	
	DENDAOSTEKOAKAMAK	

HOME / GAIK / LITERATURA / [BIDEOA] AGUSTIN ARRIETA IDAZLEAK LAU GAZTEREN ARTEKO ELKARRIZKETA DAKAR 'GAUEKO EZTABAIDAK' LIBURUAN



(argazkia: Kultur Sharea)

GIPUZKOA LITERATURA NABARMENDUAK PORTADAN

[BIDEOA] AGUSTIN ARRIETA IDAZLEAK LAU GAZTEREN ARTEKO ELKARRIZKETA DAKAR 'GAUEKO EZTABAIDAK' LIBURUAN

By Ainhoa Lores Aranda / 2022-03-30

Hiru gautan banatu du egileak elkarrizketa hau: Lehenak zientziaz, erlijioaz eta egiaz dihardu; Bigarren gauak arteaz, generoaz, maitasunaz eta balioez; eta Hirugarrenak zoriontasunaz. Liburuak benetako elkarrizketaren eta eztabaidaren aldarrikapena izan nahi duela nabarmendu du egileak.

Gauetz gertatzen den lau gazteren arteko elkarrizketa bat da Agustin Arrieta (Errenteria, 1962) idazle eta filosofo irakasleak Donostian aurkeztu duen *Gaueko eztabaidak* (**Erein**) liburuaren bereizgarri nagusia. "Elkarrizketa horretan zenbait auziren edo gairen gaineko eztabaidak bideratzen dira", azaldu du egileak.

Hiru gautan banatu du Arrietak elkarrizketa: lehenak zientziaz, erlijioaz eta egiaz dihardu; bigarren gauak arteaz, generoaz, maitasunaz eta balioez; eta hirugarrenak zoriontasunaz. "Horiek guztiek aukera ematen dute galdera filosofiko zorrotzak egiteko", adierazi du aurkezpenean Irati Zubia filosofian doktoregaiak.

Zubiak liburu hau ez dela filosofiarako sarrera bat azpimarratu du, baina balio du filosofian arreta izan duten gai eta auziak lantzeko. "Liburu honekin topo egiten duenak ez du filosofiarako sarrera bat topatuko du, baina topatuko du filosofia. Topatuko ditu lau ezezagun, eztabaidatzen, iritziak trukatzeko, elkarri galdetzen, tarteka txantxak egiten, pixkanaka elkarren lagun egiten, elkarrekin talka egiten, puntu komunetara iristen, aldentzen... Eta liburuak berak, kontatzeko moduak, lagunduko dio akaso, galdera eta eztabaida horietara gerturatu nahi duenari. Eta irudimen ariketa batekin, nork bere burua imajina dezake galdetzen taberna horietakoren batean balego, gin tonic batekin edo katilu bat kaferekin, zer esango lukeen arteaz, egiaz, moralaz, zoriontasunaz eta beste hainbat kontuz".

Liburuak benetako elkarrizketaren eta eztabaidaren aldarrikapena izan nahi duela nabarmendu du idazleak. "Helburua ez da nork bere kokagunean gotortzea, baizik eta argudioen bidez auziei aurre egitea. Hala, elkarrizketa, esan dezagun, 'enpatikoa' gertatzen da. Horrelako elkarrizketen eta eztabaiden premia dauka gure gizarteak".

Arrietaren hitzetan, liburuak egokia da gai edo auzi horiek gustuko dituen edonorentzat. "Gustatuko litzaidake liburuak tresna bat izatea Bigarren Hezkuntzan eta Unibertsitatean. Hezkuntzan, argudioen bidezko eztabaidak bultzatu behar dira, norberak berea defendatzeko eta besteena entzuteko aukera ematen dutenak".

Azkenik, idazleak irakurleak eztabaidetan eta elkarrizketetan parte hartzea, liburuan proposatzen diren arazoak balioestea eta liburuaren protagonistekiko adostasunak eta desadostasunak agerian uztea nahiko lukeela adierazi du.

Zabaldu:

Tags: Agustin Arrieta, Erein argitaletxea, Euskal Literatura, Gaueko Eztabaidak

<p>MUNDU OSOKO 21 HIRITAN EGINGO DA KORRIKAREKIN LOTURA DUEN EKIMENEN BAT</p>	<p>ERREALITATE DIGITALAREN PARADIGMAREN INGURUKO TOPAKETA ESPERIMENTALAK ANTOLATU DITUZTE TABAKALERAN</p>
---	---

BILATU



Lege oharra

✉ albisteak@kultursharea.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Saibururondezak) diruz lagundua



KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

